Beraz, ez dago kontuetan ibiltzerik horrelako jarduera larriekin, ez eta isuna jarri eta kito bukatzerik edo lizentzian ez ziren jarduerak a posteriori legeztatzerik ere. Izan ere, horrela bidaltzen den mezua da «denak balio duela», argi eta garbi baimendu gabe ziren gauzak egin, eta kito, baliozko eta legezko bihurtzen direla.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Nobu hotela eraiki duen enpresari exijitzeko baimenduta duen obra-proiektua eta indarrean den hirigintza-araudi guztia betetzeko –baita ondarea babesari dagokiona ere–, babestutako eraikinean aldatutako elementuak eta haren irudi arkitektonikoa lehen zen eran utzarazteko, eta botarazteko legez kanpo eraikita duena.

Donostia, 2023ko abenduaren 15a

Arantza Gonzalez Garcia,
Elkarrekin Donostia udal talde mistoko zinegotzia”

todos los permisos obligados por las normativas urbanísticas y municipales.

No caben, por lo tanto paños calientes ante actuaciones de esta gravedad, ni dirimir la cuestión con una sanción, o legalizando a posteriori actuaciones no contempladas en la licencia. Porque el mensaje que se traslada es que “todo vale”, que actuaciones a todas luces no permitidas, se convierten por la vía de los hechos en válidas y legales.

Por todo ello presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a exigir a la empresa constructora del Hotel Nobu el cumplimiento íntegro del proyecto de obra autorizado así como de la normativa urbanística vigente, incluido el cumplimiento correspondiente a la protección del patrimonio, obligando a la empresa a restaurar los elementos alterados y la imagen arquitectónica del edificio protegido, y el derribo de lo que se ha construido ilegalmente.

Donostia, a 15 de diciembre de 2023

Arantza González García
Concejala del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia”

Eztabaida hasita, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Borja Corominas Fisas jaunak, Rikardo Burutaran Ferre jaunak eta Nekane Arzallus Iturriza andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Arantza González García, D. Borja Corominas Fisas, D. Rikardo Burutaran Ferré y D.ª Nekane Arzallus Iturriza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – (6) EH BILDU, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – (6) EH BILDU, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.2.6. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Loiolako Erriberako mugikortasuna dela eta.**

“Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko abenduaren 18an Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Loiolako Erribera errepidez inguratutako auzoa da, gaitasun handiko bideez inguratuta dago; alde batetik, GI-20 saihesbidea du eta bestetik, Loiolako Erriberako pasealekua. Bertan, trafikoa handia izaten da eta askotan, abiadura, behar baino handiagoa. Nahiz eta Loiolako Erriberan radarra egon, kasu askotan ez da abiadura errespetatzen.

Inguratzen duten bi errepide horiez gain, auzoa erditik zeharkatzen duen Bartzelona etorbidea dago. Hortaz, finean, auzoa trafikoz inguratua bizi da eta hori dela eta, estres akustiko handia jasaten dute bertako bizilagunek.

**II.2.6. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, relativa a la movilidad en Riberas de Loiola.**

“La concejala del grupo municipal EH BILDU, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción para su consideración en el Pleno. La moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacios Públicos el 18 de diciembre de 2023.

JUSTIFICACIÓN

Riberas de Loiola es un barrio rodeado de carreteras, de viales de gran capacidad. Por un lado, se encuentra la variante GI-20 y, por otro, el paseo de la Ribera de Loiola. Hay mucho tráfico y, en ocasiones, la velocidad es mayor de lo que debiera. A pesar de que en Riberas de Loiola hay un radar, en muchos casos no se respeta la velocidad.

Además de estas dos carreteras que rodean el barrio, está la avenida de Barcelona, que lo atraviesa por el centro. En definitiva, el barrio vive rodeado de tráfico, lo que hace que el vecindario sufra un gran estrés acústico.

Bizilagunek askotan eskatu dituzte abiadura moteltzeko neurriak, baina orain arte ez da neurri eraginkorrik hartu. Egoera horrek mugikortasun arazoak sortzen ditu eta kutsadura akustikoa, bizilagunek egunero pairatu behar dutena.

Los vecinos han solicitado, en numerosas ocasiones, que se implanten medidas de moderación de la velocidad, pero, hasta ahora, no se ha adoptado ninguna que sea efectiva. Esta situación genera problemas de movilidad en el barrio, además de la contaminación acústica, que sufren diariamente los vecinos.

Bizilagunen aspaldiko eskaera da GI-20 saihesbidean Erriberako etxebizitzen aldean zarata murrizteko panelak jartzea. Udal Gobernua horri buruz interpelatuta, Mugikortasun eta Garraioko zinegotziaren bidez jakin genuen Udal Gobernuak jada eskaera egin duela Gipuzkoako Foru Aldundian eta erantzunaren zain dagoela. Bestalde Udal Gobernuak Loiolako Erriberako pasealekuko eta Bartzelona hiribideko autoen sarrera eta abiadura murrizteko borondatea adierazi zuen.  Dena dela, ez genuen konpromiso zehatzik ikusi hori berehalakoan gauzatzeko.

Una demanda de los vecinos que viene de atrás es la instalación de paneles de reducción de ruido en la variante GI-20, en el lado de las viviendas de Ribera. Interpelado el Gobierno Municipal al respecto, a través de la concejala de Movilidad y Transportes, supimos que ya han presentado la solicitud correspondiente a la Diputación Foral de Gipuzkoa y que están a la espera de su respuesta. Por otra parte, el Gobierno Municipal manifestó su voluntad de restringir el acceso y la velocidad de los vehículos en el paseo de la Ribera de Loiola y en la avenida de Barcelona.  Sin embargo, no apreciamos que hubiera un compromiso concreto para llevar a cabo de forma inmediata dicho propósito.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Por todo lo expuesto, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Loiolako Erriberako bizilagunek pairatzen dituzten mugikortasun arazoak eta zarata murrizteko neurriak har ditzala Bartzelona hiribidean eta Loiolako Erriberako pasealekuan.

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que adopte las medidas necesarias, en la avenida de Barcelona y en el paseo de la Ribera de Loiola, para reducir los problemas de movilidad y el ruido que sufren los vecinos del barrio.

2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Loiolako Erriberako mugikortasun arazoak konpontzeko neurriak Loiolako Erriberako bizilagunekin parteka ditzala.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que comparta con los vecinos de Riberas de Loiola las medidas para solucionar los problemas de movilidad del barrio.

Donostian, 2023ko abenduaren 15ean

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

San Sebastián, 15 de diciembre de 2023

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego,
concejala del grupo municipal EH BILDU".

Eztabaida hasita, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Olatz Yarza Garagorri andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Garbiñe Alkiza López de Samaniego, D.ª Arantza González García, D. Borja Corominas Fisas y D.ª Olatz Yarza Garagorri, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.7. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Loiolako Erriberetako ekipamendu-lursail baterako aurreikusitako erabilerak aldatu aurretik, partaidetza prozesu bat egitea dela-eta.**

"Ricardo Burutaran Ferré EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin, Loiolako Erriberetako ekipamendu-lursail baterako aurreikusitako erabilerak aldatu aurretik partaidetza prozesu bat egitea dela-eta. Kontrol mozio hau 2023ko abenduaren 11n Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

**II.2.7. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la realización de un proceso participativo previo a la modificación de los usos previstos para una parcela equipamental en Riberas de Loiola.**

"Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para su tratamiento en Pleno, sobre la realización de un proceso participativo previo a la modificación de los usos previstos para una parcela equipamental en Riberas de Loiola. La moción de control es consecuencia de la interpelación sustanciada en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 11 de diciembre de 2023.

JUSTIFICACIÓN

Gure udal taldeak jakin du Loiolako Erriberetako Auzokideen Elkarteak idazki bat aurkeztu duela; bertan, udal taldeei eskazen diete partaidetza sustatzeko, Erriberetako auzotarrek iritzia eman dezaten kirol erabileretarako aurreikusitako ekipamendu-lursailak azkenean izango duen erabileraz.

Nuestro grupo municipal ha tenido conocimiento de la presentación de un escrito por parte de la Asociación de Vecinos de Riberas de Loiola en la que solicitan a los grupos municipales que promuevan dar cauce a la participación para que el vecindario de Riberas pueda emitir su opinión sobre el destino final de la parcela equipamental prevista para usos deportivos.

Udaleko talde guztiok esaten dugu parte-hartze benetako eta eraginkor baten alde gaudela, eta horrek berekin dakar legeetan jarritako gutxieneko parte-hartze eta/edo alegazio prozesuak betetzea.

La promoción de una participación real y efectiva por la que todos los grupos decimos apostar exige, lógicamente, superar los mínimos procesos de participación y/o alegación establecidos legalmente.

Alde horretatik, guztiz zentzuzkoa da udal taldeoi proposatzea benetako parte-hartze prozesu bat irekitzea, lursail bati eman beharreko erabilerei buruzkoa, are gehiago lursail hori ekipamendutzat kalifikatuta badago eta, gainera, hasieran aurreikusita zuen erabilera aldatu nahi bada.

Desde ese punto de vista, resulta del todo razonable que se nos proponga a los diferentes grupos municipales que se proceda a la apertura de un proceso de participación real sobre los usos a dar a una parcela, máxime si la misma está calificada como de equipamiento y, además, se pretende mudar el uso previsto inicialmente.

Horri buruz Hirigintza Jasangarriaren ordezkariak interpelatuta, parte-hartze prozesu bat egiteko aukera ukatu zuen, nahiz eta tokiko ekipamendu moduan erabiltzeko lursail bat izan, hau da, helburu duena auzoaren beharrak asetzea.

Interpelada al respecto la delegada de Urbanismo Sostenible, rehusó la posibilidad de realizar un proceso de participación, todo ello a pesar de que se trata de una parcela de uso de equipamiento local, es decir, destinada a satisfacer las necesidades del barrio.

Hori dela-eta, behean sinatu duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

A la vista todo ello, el concejal que suscribe presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Loiolako Erriberetako Auzokideen Elkarteak udal taldeei eskatu dien bezala, auzokideekin parte hartzeko prozesu bat ireki dezala, auzoak dituen beharrei eta gabeziei buruz aritzeko, bai eta HAPOk tokiko ekipamendurako lursail gisa kalifikatutako lursail bati eman dakizkiokeen erabilerei buruz

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que, tal y como ha solicitado a los grupos municipales la Asociación de Vecinos de Riberas de Loiola, abra un proceso de participación con el vecindario del barrio sobre las necesidades y carencias que presenta el mismo, así como sobre los posibles usos a dar a una parcela calificada por el PGOU

jarduteko ere.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, gobernantza publiko berri baterako beharrezko diren printzipioen arabera eta gardentasunaren, parte-hartzearen eta lankidetzaren printzipioak aplikatuz, herritarrek benetan parte hartzeko neurriak eta bideak ezar ditzala, plangintza aldatzea dakarten erabakiak hartu aurretik, aldaketa horiek egiturazko plangintzakoak izan nahiz xehatukoak izan.

Donostia, 2023ko abenduaren 15a

Izpta.: Ricardo Burutaran Ferré,
EH BILDU udal taldeko zinegotzia"

como parcela de equipamiento local.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que, de acuerdo con los principios requeridos para una nueva gobernanza pública y en aplicación de los principios de transparencia, participación y colaboración, implemente medidas y cauces de participación reales de la ciudadanía, previos a la adopción de acuerdos que impliquen modificaciones del planeamiento ya sean estos de planeamiento estructural o pormenorizado.

Donostia, a 15 de diciembre de 2023

Fdo.: Ricardo Burutaran Ferré,
Concejal del grupo municipal EH BILDU"

Eztabaida hasita, Rikardo Burutaran Ferre jaunak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Nekane Arzallus Iturriza andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Rikardo Burutaran Ferré, D.ª Arantza González García, D. Borja Corominas Fisas y D.ª Nekane Arzallus Iturriza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

7**. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 10 – (6) EH BILDU, (3) PP, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 – (6) EH BILDU, (3) PP, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**

**ABSTENTZIOAK: 0.**

**ABSTENCIONES: 0.**

**7. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – (6) EH BILDU, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – (6) EH BILDU, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.8. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Oleta-Pikabeako irisgarritasuna hobetzeko plan berezia dela eta.**

“Ricardo Burutaran Ferrék, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko abenduaren 18an Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Udalaren 2020rako aurrekontuak 2019ko abenduaren 19ko udalbatzarrean onartu ziren. Udalbatzaren bilkura hartan, EH Bildu udal taldeak eskatuta, 643.03 zenbakiarekin, 70.000 euroko partida bat gehitu zen, Oleta-Pikabeako irisgarritasuna hobetzeko plan berezi bat egiteko.

**II.2.8. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el plan especial de mejora en la accesibilidad en Oleta-Pikabea.**

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación tratada el 18 de diciembre de 2023 en la Comisión de Espacio Público.

JUSTIFICACIÓN

Los presupuestos del Ayuntamiento para 2020 fueron aprobados en la sesión plenaria celebrada el 19 de diciembre de 2019. En dicha sesión, a petición del grupo municipal EH Bildu, se incluyó una partida de 70.000 euros (nº 643.03), para la elaboración de un Plan Especial para la mejora de la accesibilidad en Oleta-Pikabea.

2021eko maiatzeko Udalbatzaren bilkuran, EH Bilduk aurkeztutako kontrol mozio bat onartu zen. Mozio horretan, Oleta-Pikabea auzoko irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko plan berezia definitzeko prozesuari lehenbailehen ekiteko eskatu zitzaion Udal Gobernuari, aipatutako plan berezia egitean kontuan har zitzan Berdintasun Bulegoak proposatutako konponbideak, bai eta auzokideentzako partaidetza-prozesu bat antolatzeko ere.

En la sesión plenaria de mayo de 2021, se aprobó una moción de control presentada por EH Bildu. En dicha moción, se solicitó al Gobierno Municipal que iniciara cuanto antes el proceso de definición del Plan Especial para la mejora de la accesibilidad y de la seguridad en el barrio de Oleta-Pikabea, y que, en la elaboración del citado Plan, se tuvieran en cuenta las soluciones propuestas por la Oficina de Igualdad. Así mismo, se solicitó que se articulara un proceso de participación vecinal.

Egia da Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkariak plan bereziaren zirriborroa aurkeztu zigula duela urtebete baino gehiago. Hala ere, harrez geroztik, Tokiko Gobernu Batzarrak oraindik ez du plan berezi hori onartu.

Es cierto que la concejala delegada de Urbanismo Sostenible nos presentó el borrador del Plan Especial hace más de un año. Sin embargo, la Junta de Gobierno todavía no ha aprobado dicho plan.

Plan berezia definitzeko prozesuari lehenbailehen ekitea onartu zen duela bi urte eta oraindik ere plana egin gabe dago. Hortaz, horri buruz interpelatu genuen batzordeetan Udal Gobernua. Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkariaren esanetan, alde batetik, plana osatzeko Mugikortasun Sailarekin lanean ari dira bertako mugikortasunari irtenbidea emateko, eta bestetik, Idazkaritzarekin harremanetan ari dira lurren desjabetzeak egiteko prozedura martxan jarri ahal izateko.

Hace ya dos años que se aprobó que se iniciara inmediatamente el proceso de definición del Plan Especial, y aún no se ha elaborado dicho plan. Por ello, interpelamos al Gobierno Municipal al respecto, en las distintas comisiones. La concejala delegada de Urbanismo Sostenible dijo que, por un lado, están trabajando con el Departamento de Movilidad en la elaboración del Plan para dar solución a la movilidad en la zona y que, por otro lado, están en contacto con la Secretaría para poder poner en marcha el procedimiento de expropiación de terrenos.

Lan horiek egiteko, zinegotzi ordezkariaren esanetan, hiru hilabete beharko dira, eta horiek argitutakoan egingo dute Oleta-Pikabea auzoko irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko plan berezia.

Para la realización de estos trabajos, la concejala delegada dijo que necesitarán tres meses y, una vez finalizados estos, elaborarán el Plan Especial para la mejora de la accesibilidad y de la seguridad en el barrio de Oleta-Pikabea.

Bertako bizilagunek urteak daramazkite horrelako plan berezi baten zain eta beraz, EH Bildutik ezinbestekoa ikusten dugu plana lehenbailehen egitea, irisgarritasunaren afera

Los vecinos de la zona llevan años esperando un plan especial de este tipo, por lo que EH Bildu considera imprescindible que el plan se haga cuanto antes, sin retrasar más la cuestión

gehiago ez luzatzea, bizilagunak informaturik izatea eta horretarako guztirako konpromiso garbia azaltzea.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Oleta-Pikabea auzoko irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko plan berezia lehenbailehen egin dezan, plana era jarraian egin dadin etenik gabe eta dagokion lehentasuna eman diezaion.

2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Oleta-Pikabea auzoko irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko plan berezia egin aurretik bertako bizilagunekin elkartu dadin haien iritziak eta ekarpenak jasotzeko.

Donostian, 2023ko abenduaren 15ean

Ricardo Burutaran Ferré
EH BILDU udal taldeko zinegotzia"

de la accesibilidad, que los vecinos estén informados y que se muestre un compromiso claro con todo ello.

Por todo ello, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que elabore cuanto antes el Plan Especial para la mejora de la accesibilidad y de la seguridad en el barrio de Oleta-Pikabea, que este plan se lleve a cabo sin interrupciones y que se le dé la prioridad que le corresponde.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que, antes de elaborar el Plan Especial para la mejora de la accesibilidad y de la seguridad del barrio de Oleta-Pikabea, se reúna con el vecindario, para recabar sus opiniones y aportaciones.

San Sebastián, 15 de diciembre de 2023

Ricardo Burutaran Ferré,
concejal del grupo municipal EH BILDU"

Eztabaida hasita, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Vanessa Velez de Pablos andreak eta Nekane Arzallus Iturriza andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras D.ª Garbiñe Alkiza López de Samaniego, D.ª Arantza Gonzalez Garcia, D.ª Vanessa Vélez de Pablos y D.ª Nekane Arzallus Iturriza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.9. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Donostiako ostatu-erabilerak arautzeko HAPOren aldaketa puntualari buruzkoa.**

“Ricardo Burutaran Ferré EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin, Donostiako ostatu erabilerak arautzeko HAPOren aldaketa dela-eta. Kontrol-mozio hau 2023ko abenduaren 11n Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

2023ko otsailaren 14an, Gobernu Batzarrak Donostiako HAPOren aldaketa idazteko lanak enkargatu zituen. Helburua zen ostatu-erabilerak arautzea, ingurumen-ebaluazio estrategikoa izapidetzeko dokumentazioa barne.

Irizpenak dioenez, kontratuaren xedea da HAPOren aldaketaren fase guztiak idaztea, harik eta behin betiko onarpen-dokumentua argitaratzeko behar den dokumentazioa aurkeztu arte.

2023ko martxoaren 14an, Gobernu Batzarrak lizentziak etetea onartu zuen HAPO aldatzeko espedientean. Etete hori –Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legean xedatuta dagoen bezala–, hasierako onespena emateko eskumena duten administrazioek erabaki dezakete, gehienez urtebeteko epean.

**II.2.9. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la modificación puntual del PGOU para la regulación de los usos de hospedaje en Donostia.**

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, para su tratamiento en Pleno, sobre la modificación puntual del PGOU para la regulación de los usos de hospedaje en Donostia. La moción de control es consecuencia de la interpelación sustanciada en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 11 de diciembre de 2023.

JUSTIFICACIÓN

Con fecha 14 de febrero de 2023 la Junta de Gobierno Local encargó los trabajos de redacción de la modificación del PGOU de Donostia para la regulación de los usos de hospedaje incluyendo la documentación para tramitar la evaluación ambiental estratégica.

Según reza el dictamen, el objeto del contrato es la redacción, en todas sus fases, de la modificación del PGOU hasta la entrega de la documentación necesaria para publicar el documento de aprobación definitiva.

Con fecha 14 de marzo de 2023, la Junta de Gobierno Local aprueba la suspensión de licencias en el expediente de la modificación del PGOU. Dicha suspensión -tal y como queda establecido en la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo- podrá acordarse por las administraciones competentes para la probación inicial por el plazo máximo de un año.

Egia da GAOn eta hedapen handieneko egunkari edo egunkarietan argitaratzen denetik hasten dela epe hori kontatzen. Ildo horretatik, apirilaren 18an, aipatutako etetearen onarpena argitaratu zen GAOn.

Es cierto que el plazo empieza a computarse a partir de la publicación de la misma en el BOG y en diario o diarios de mayor difusión. En este sentido, con fecha 18 de abril, se publicó en el BOG la aprobación de la mentada suspensión.

Urriaren 19an, udal taldeoi deitu ziguten informazio-bilera batera, HAPOren aldaketa puntuala idatzi zutenek ordura arte egindako lanaren berri emateko. Bilera hartan, «aurreratu ziguten», beste bilera bat egingo zutela taldeekin, baina orain arte ez dugu inolako berririk izan, nahiz eta denbora luzea igaro den.

Con fecha 19 de octubre los grupos municipales fuimos convocados a una reunión informativa sobre el trabajo realizado hasta esa fecha por los redactores de la modificación puntual del PGOU. En dicha reunión “se nos avanzó” la celebración de una nueva reunión con los grupos, sin que hasta la fecha y, a pesar del tiempo trascurrido, hayamos tenido noticia alguna.

Epe hori igarota, HAPOren aldaketa puntualak hasierako onespena lortzen ez badu, etetea kendu beharko litzateke; premiazkoa da aldaketa puntual horri ahalik eta presarik handiena ematea, hasierako onespena eman ahal izateko.

Teniendo en cuenta que, en caso de que transcurra el citado plazo sin haber llegado a aprobarse inicialmente la modificación puntual del PGOU, debería alzarse la suspensión acordada, resulta acuciante que se otorgue a la misma la máxima celeridad al objeto de que pueda ser aprobada inicialmente.

Udal Gobernua horri buruz interpelatuta, Hirigintza Jasangarriaren ordezkariak erantzun zigun ingurumen-organoak idatziz emandako erantzunaren zain zeudela, eta ondorio hau espero zutela: ez dela beharrezkoa ingurumen-adierazpena izapidetzea HAPOren aldaketa puntual hori onartzeko. Bigarren bilera bat egingo da udal taldeekin 2024ko urtarrilean, eta testua eta proposamenak hasieran aurkeztutakoak dira (hau da, taldeekin lehen bilera egin ondoren, dokumentuan ez da egokitzapenik egin).

Interpelado al respecto el Gobierno Municipal, la delegada de Urbanismo Sostenible nos contestó que estaban esperando la respuesta por escrito del órgano ambiental en el sentido de concluir que no resulta necesaria la tramitación de la declaración ambiental para aprobar la citada modificación puntual del PGOU, que se tendría una segunda reunión con los grupos del Ayuntamiento a lo largo del mes de enero de 2024 y que tanto el texto como las propuestas eran las inicialmente presentadas (es decir que, tras la realización de la primera reunión con los grupos, no se habían realizado ajustes en el documento).

Beraz, Udal Gobernua ez dirudi prest dagoenik, egindako azterketen arabera gomendatutako atalaseak gainditzen diren eremuetan, eta, are gehiago, segregazio edo gentrifikazio mailetan dauden eremuetan, ostatu erabileretarako jarduera gehiago

Por tanto, el Gobierno Municipal no parece dispuesto a evitar que en aquellas zonas que los estudios realizados ya concretan que se superan los umbrales recomendados para este tipo de actividades e incluso llegan a situarse, en algunos casos, en niveles de segregación o gentrificación,

ezartzea debekatzeko. Horrek, zalantzarik gabe, auzo horietan sortutako egoera areago larriagotuko du.

Hori dela-eta, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, hirian ostatu-jardueren ezarpenari buruzko datuak eta azterlanak ikusita, hasieran aurkeztutako proposamena alda dezala, ostatu-jarduera gehiago ezartzeko aurreikuspena kentzeko gomendatutako atalaseak gainditzen dituzten eta are gentrifikazio-mailetan dauden auzoetan.

2.- Era berean, Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen zaio ostatu-erabileren ezarpena arautzeko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntuala hasiera batean onar dezala, ahalik eta azkarren, etena argitaratzen denetik urtebeteko epea igaro ez dadin, eta onartu beharreko proposamenak neurri eraginkorrak har ditzala hiriko beste auzo edo hirigintza-eremu batzuetan gomendatutako gehieneko atalaseak gainditu ez daitezen.

3.- Era berean, Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen zaio erabilera turistikoko pisu eta/edo logela guztiak ikuskatzeko prozesu oso bat egitea erabakitzeko, jarduera horiek egindako erantzukizunpeko adierazpena eta aplikatu beharreko araudia betetzen dituztela egiaztatu ahal izateko, etxebizitzaren edo logelen azaleraren arabera baimendu daitekeen plaza-kopurua barne.

Donostia, 2023ko abenduaren 15a

puedan seguir instalándose nuevas actividades de usos de hospedaje lo que, indudablemente, agravará todavía más la situación generada en esos barrios.

A la vista de todo ello, el concejal que suscribe presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que, a la vista de los datos y de los estudios realizados sobra la implantación de actividades de hospedaje en la ciudad, modifique la propuesta inicialmente presentada, eliminando la previsión de que puedan implantarse nuevas actividades de hospedaje en barrios en los que ya se superan los umbrales recomendados e incluso se encuentran en niveles de gentrificación.

2.- Del mismo modo se insta al Gobierno Municipal a que la modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana para regular la implantación de usos de hospedaje se apruebe inicialmente con la máxima celeridad, al objeto de evitar que transcurra el plazo de un año desde la publicación de la suspensión, así como que la propuesta a aprobar contemple medidas efectivas para evitar que se superen los umbrales máximos recomendados en otros barrios o ámbitos urbanísticos de la ciudad.

3.- Asimismo se insta al Gobierno Municipal a que acuerde la realización de un proceso completo de inspección de todos los pisos de uso turístico y/o habitaciones de uso turístico al objeto de poder comprobar que dichas actividades cumplen con la declaración responsable efectuada y con la normativa de aplicación, incluida la revisión del número de plazas autorizable en función de la superficie de la vivienda o habitaciones.

Donostia, a 15 de diciembre de 2023

Izpta.: Ricardo Burutaran Ferré,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia"

Fdo.: Ricardo Burutaran Ferré,
Concejal del grupo municipal EH Bildu"

Eztabaida hasita, Rikardo Burutaran Ferre jaunak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Vanessa Velez de Pablos andreak eta Nekane Arzallus Iturriza andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D. Ricardo Burutaran Ferré, D.ª Arantza González García, D.ª Vanessa Vélez de Pablos y D.ª Nekane Arzallus Iturriza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (7) EH BILDU, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (7) EH BILDU, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.10. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Kaiko etxebizitzetan zuntz optikoa ez sartzeari buruzkoa.**

"Jon Markel Ormazabal Gaztañaga EH Bildu udal taldeko zinegotziak Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko abenduaren 11ko Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Kaiko bizilagunek administrazio ezberdinen aurrean duten babesgabetasuna gai

**II.2.10. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre no introducir la fibra óptica en las viviendas del muelle.**

"Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios a las Personas el 11 de diciembre de 2023.

JUSTIFICACIÓN

La desprotección de las vecinas y vecinos del muelle por parte de diferentes administraciones ha

errepikakorra izan da azken urteotan. Baina, arazoa, konpontze bidean egotetik urruti, okertzen ari dela esan daiteke. 2023ko urriaren 18an, zuntz optikoari buruzko albiste batean, honela irakurtzen genuen:

> “471 viviendas en San Sebastián se quedan indefinidamente sin cobertura de fibra al resultar imposible llevar hasta ellas la red de fibra”.

> “El Ayuntamiento ha pagado las canalizaciones en buena parte del casco antiguo para desbloquear la situación (...) Sin embargo, hay una zona donde el Ayuntamiento no dispone de canalizaciones y por tanto las operadoras no podrán llegar. Se trata de la Zona Puerto, cuyos residentes pasarán a depender de la red móvil. En total 471 accesos se harán mediante radio, teniendo que instalar una caja de voz 4G o un router FWA 4G, dependiendo de si solo tienen contratado teléfono fijo o también banda ancha fija.”

Portaleta eta Aquarium arteko eremua zuntz optikoz zeharkatua dago. Bizilagunek salatu dutenez, konexioa etxe atondoetara bideratzea besterik ez da falta. Baina, beste behin ere, administrazio eta eskumen ezberdinen nahasketa dela eta, egin gabe geratu da. Eusko Jaurlaritzak ez du egiteko asmorik, eta Udal Gobernuak, bere aldetik, bere eskumenetik kanpo dagoela adierazi du.

Hala ere, abenduaren 11ko Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean, Nekane Arzallus Hirigintzako zinegotzi ordezkariak aurreratu zuen Donostiako Udala telefonia operadoreekin hitz egiten ari dela “haiek inguru

sido una cuestión recurrente en los últimos años. Pero podríamos decir que el problema, lejos de estar en vías de solución, está empeorando. Así, el 18 de octubre de 2023, en una noticia sobre fibra óptica, leíamos lo siguiente:

> «471 viviendas en San Sebastián se quedan indefinidamente sin cobertura de fibra al resultar imposible llevar hasta ellas la red de fibra».

> “El Ayuntamiento ha pagado las canalizaciones en buena parte del casco antiguo para desbloquear la situación (...) Sin embargo, hay una zona donde el Ayuntamiento no dispone de canalizaciones y por tanto las operadoras no podrán llegar. Se trata de la Zona Puerto, cuyos residentes pasarán a depender de la red móvil. En total 471 accesos se harán mediante radio, teniendo que instalar una caja de voz 4G o un router FWA 4G, dependiendo de si solo tienen contratado teléfono fijo o también banda ancha fija.”

La fibra óptica atraviesa la zona comprendida entre Portaletas y el Aquarium. Las y los vecinos denuncian que sólo falta llevar la conexión hasta los portales de las viviendas. Pero, una vez más, debido a los líos entre administraciones y competencias, esa conexión no se ha llevado a cabo. El Gobierno Vasco no tiene intención de llevar a cabo dicha conexión, y el Gobierno Municipal, por su parte, ha manifestado que el tema excede a sus competencias.

No obstante, en la Comisión de Servicios a las Personas del 11 de diciembre, la concejala delegada de Urbanismo, Nekane Arzallus manifestó que el Ayuntamiento de San Sebastián está en contacto con los operadores de telefonía

horretarako irtenbide egoki bat proposatu dezaten". Halaber, gaineratu zuen operadoreek konpromisoa hartu dutela gabonak baino lehen proposamen bat aurkezteko, udal teknikariek azter dezaten. Udala, gainera, udal eremuan dauden gainerako lurpeko sareak aztertzen ari dela adierazi zuen, zuntz optikoa igarotzeko dauden sareetako bat partekatzeko aukera egon litekeelakoan. Eta honela amaitu zuen hitzartzea: "Udalaren nahia da telefonia operadoreek neurri egokiak hartzea kaiaren inguruan telekomunikazio zerbitzua kalitatez emango dela bermatzeko".

"para que estos propongan una solución adecuada a la zona". Añadió que los operadores se han comprometido a presentar una propuesta antes de las Navidades, que será estudiada por los técnicos municipales. Además, señaló que el Ayuntamiento está estudiando el resto de redes subterráneas existentes en el ámbito municipal, para analizar la posibilidad de compartir una de ellas para el paso de la fibra óptica. Y concluyó su intervención en los siguientes términos: "Es voluntad del Ayuntamiento que los operadores de telefonía tomen las medidas adecuadas para garantizar la calidad del servicio de telecomunicaciones en el entorno del muelle".

Jakin badakigu udal ordezkariak harremanetan daudela Kaiko bizilagunekin. Gaiari buruz aritzeko izandako lehen bilkuran ordezkariek adierazi zieten Kaiko esku-hartzea bigarren fase batean egitea aurreikusia zegoela, eta behin Parte Zaharreko lanak amaituta, hasiak zirela lanekin. Kontua da, azaroaren 29az geroztik bizilagunek zerbitzua etenda dutela. Ondorioz, eta adierazi digutenaren arabera, une hauetan nork bere alternatibak bilatu behar izan ditu teleoperadoreekin (4G, antena parabolikoa...). Bizilagunen hitzetan, "no garantía" egoera batean daude 2024ko apirilera arte; hau da, tarte honetan ezin dute bajarik eman eta kontratatutako zerbitzuan matxuraren bat eduki ezkero ez zaie konponduko.

Por otra parte, sabemos que los representantes municipales están en contacto con los vecinos del Muelle. En la primera reunión que mantuvieron al respecto, los representantes les indicaron que la intervención en el Muelle estaba prevista para una segunda fase y que, una vez finalizados los trabajos de la Parte Vieja, se habían iniciado las obras. El caso es que, desde el 29 de noviembre, los vecinos tienen suspendido el servicio. En consecuencia, y según nos han indicado, cada vecino ha tenido que intentar encontrar sus alternativas particulares con los teleoperadores (4G, antena parabólica...). Según el vecindario, se encuentran en una situación de "no garantía" hasta abril de 2024, es decir, no pueden darse de baja en este tiempo, pero, si el servicio contratado sufre alguna avería, no se les solucionará.

Horregatik guztiarengatik, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Por todo lo expuesto, el concejal abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuri, Kaiko bizilagunen egoera kontutan hartuta, lehentasunez eta premiaz landu ditzala Kaiko eremuan bizi diren donostiarren etxeetara zuntz optikoaren zerbitzua iristeko lanak.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que, teniendo en cuenta la situación de los vecinos del Muelle, se ocupe de forma prioritaria y urgente de las obras de conexión del servicio de fibra óptica a los domicilios de los donostiarras residentes en esa

zona.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Euskal Autonomia Erkidegoko Portu eta Itsas Garraioaren ekainaren 28ko 2/2018 Legean aurreikusitakoaren arabera Donostiako Portuko Udal Kontseilua sortzeko izapideak azkartzea, eta bien bitartean, administrazio ezberdinen eta Kaiko bizilagunen arteko komunikazioa errazteko bitartekoak sortzea.

Donostian, 2023ko abenduaren 15ean

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia"

2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que agilice los trámites para la creación del Consejo Municipal del Puerto de San Sebastián, de conformidad con lo previsto en la Ley 2/2018, de 28 de junio, de Puertos y Transporte Marítimo del País Vasco, y, entre tanto, a que cree medios que faciliten la comunicación entre las distintas administraciones y los vecinos del Muelle.

San Sebastián, 15 de diciembre de 2023

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga,
concejal del grupo municipal EH Bildu"

Eztabaida hasita, Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak eta Nekane Arzallus Iturriza andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Markel Ormazabal Gaztañaga, D.ª Arantza González García, D. Jorge Mota Iglesias y D.ª Nekane Arzallus Iturriza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**ETA BILERAK BESTE XEDERIK EZ DUENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO EGUNEKO ARRATSALDEKO ORDU BATAK HOGEITA BOST GUTXIAGOTAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO**

**Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS DOCE HORAS Y TREINTA Y CINCO MINUTOS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, LA SECRETARIA, DOY FE:**

**GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:**

**LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:**

**IDAZKARIA: / LA SECRETARIA:**